

Irakurlearen errebolta

B

itxia egin zait, Itxaro, zuk idatzitakoen artean, *Maiatz* aldizkariaren urteurren ekitaldian emakume hark eskaturikoa. Aspaldian ez zait niri suerte hori egokitu, norbaitek borrokara deitzearena. Lehenago bai, lehenago eta batez ere afalosteetan, udan bereziki, likore batzuk, belardian edo hondartzan, hartu bitartean. Idatzi baino zerbait gehiago egin behar zen, hau guztia aldatuko bagenuen. Zehaztapenik ez. Zerbait gehiago eta hau guztia. Demagogikotik bazuen, belardian edo hondartzan sutsu aritzen zirenek ez baitzuten inoiz hatzik mugitu –izan ere, eta gure aurreko gaiari lotuta, haietariko baten batek, epeltzat ninduen berberak, eskuinera biratu du, eta nik nengoen-nengoenan jarraitu, epel, haren ustean, agian txepel– eta demagogikotik zerbait badu zuei esandako hark ere: “Aski solas eder, aski poesia leun, borrokara behar dugu”. Lagun batek galdetu bezala: borrokara? Zein borrokara? Armatura? Gose grebara? Poesia sozialera?

Gure salbatzaileek su-etena –berriz ere– hautsi duten honetan, komunikatu bat zirri-borratu zait gogoan:

“Nik, literatur askapenerako erakunde lagunbanako eraginkorrek, ondorengoaren berri eman nahi diet euskal idazleagoari. Herriaren eskaerei anitz urtez entzungor egin badiezue ere, argipen –ez argitalpen– garaiak dira. Liburu metak, hitz katea ezinago lotuak, metafora opiazekoak, aipuen gurgil balaztarik gabea, etorkizunez kargaturiko poema trabakatuak... Argi dago orain arteko sasi irtenbideek ez garamatzatela inora, horra hor, inork adibiderik beharko balu, isiltasunaren poetika gero eta zabalduagoa, bide honetatik zer esan ez dagoelako frogarik behinena. Literatura benetan eraginkorra gure esku dago eta lortuko dugu.

Liburuak zein liburuetan agertzen diren hitzeko elementuak oro eraso



JOSU SANTESTEBAN

Angel Erro

Basterrereña

Borda

modu bat dira, idazlea deitzen dugun gizabanakoak burututakoa eta irakurleagoa deitzen dugun multzoak pairatutakoa. Eraso honek helburu menderatzailea eta bortxatzailea du. Septimiok esaten duenez ‘idazten duenak sodomizatzen du, irakurtzen duena sodomizatua da (*paedicator qui legit*)’. Ez ahaztu erromatar pentsamoldean gizon libroak ezin duela akti-

boa –bugrea– besterik izan. Idazleak, beraz, irakurlea egiten du morroi, meneko. Mozorroak kendu dira. Idazketa faxismoan (sic) bihurtu da, edo bere botere tiranikoaren erabilpen egolatan, eta ezin die bizitza honen benetako arazoei –direnak direlakoak– aurre egin.

Negoziaketa ahalegin minimorik ere alferrik gertatu da, hitz ederrak eta asmo onak baino ez saltzetik aski dela behin eta berriz argi utzi dizuegun arren. Hitz gordinik eta istorio zitalik ere aski dira. Denbora batez, agian, engainatzea lortu zenuten, gaur ez duzue haur bat ere horrekin bereganatzen, ez epatatzen. Baina ez dira horiek literatoon iruzur bakarrak. Aurreranzko ihesaldi zoroan, ironia eta trufa hitzetik hortzera dauka egun idazleak, eguzkiari ilargi eta ilargiari keinuka. Bere nagusitasunari ez dio uko egiten hartaz burlatzen denak. Areago, hola umiliagotzen ditu menekoak, irakurleak”.

Honaino, Jose Inazio, erakundearen agiria. Analisiarekin egon naiteke gutxi gorabehera ados. Baina ez dut ikusten, jada zirkulazioan dauden irtenbide xahutuatarik aparte, zer den irakurleak idazleoi eskatzen digutena, nola

nahi duen literatura faltsu eta ustel honi oldar diezaiogun, eraginkortasunaren izenean. Batzuetan pentsatu dut, literaturak ezin duenez ezer lortu, eskatzen zaigula bizitza zibilerira birpasa gaitetzela, zerbait utila egitearren. Besteetan pentsatzen dut hori eskatzen didan irakurlea ezin dela nire irakurlea izan. ■

Nik, literatur askapenerako erakunde lagunbanako eraginkorrek, ondorengoaren berri eman nahi diet euskal idazleagoari. Herriaren eskaerei anitz urtez entzungor egin badiezue ere, argipen –ez argitalpen– garaiak dira